



PRENTSA OHARRA



**NAZARIO DÍAZ KOREOGRAFOAK BERE DANTZA-
IKUSKIZUN BERRIA ESTREINATUKO DU AZKUNA
ZENTROAN**

- *amanecer alto cielo* ikusmenaren nolakotasun batzuk jorratzen ditu, eta nola aldatzen dituzten gorputzak eta haien gaineko pertzepzioa
- Emanaldia apirilaren 11n izango da, Azkuna Zentroko auditorioan, 19:00etan.

amanecer alto cielo
Nazario Díaz

Noiz: apirilak 11, osteguna

Ordua: 19:00

Non: Azkuna Zentroko auditorioan

Nazario Diaz elkarrizketatzeko aukera egongo da aldez aurretik eskatuta hurrengo helbidean: prentsa@azkunazentroa.eus



Datorren ostegunean, apirilaren 11n, **Nazario Díaz koreografoak *amanecer alto cielo* dantza ikuskizuna estreinatuko du** Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroan. Lan honek **hizkuntza nola desagertzen den planteatzen du**, elementu eszenografiko gisa, haren materialtasunak lotzen dituzten testu-praktika desberdinen bidez.

Era berean, **ikusmenaren nolakotasun batzuk jorratzen ditu, eta nola aldatzen dituzten gorputzak eta haien gaineko pertzepzioa**, Lisa Nelson koreografo eta bideo-artistak proposatutako begiradari buruzko praktika batzuetan oinarrituta. Gure dantza honetan eskuak begira daude, begiek jotzen dute eta gorputzak ezabatzen dira.

amanecer alto cielo lanean, **begiradarik gabeko hiru gorputzek hitzak adierazten dituzte triangelu moduko batean**, zeinaren erpinak elkarrengana hurbildu eta urruntzen diren, elkarren artean erlazio ekilateroak, isoszeleak edo eskalenoak ezarriz, distantzia nabari eta subjektiboak antolatuz izendatutakoaren eta jada desegiten hasia denaren artean.

Nazario Díazek arte performatiboen eremuan egiten du lan, eta arreta jartzen du gorputzaren, begiradaren eta idazketaren artean sortzen den tentsioan. "Lehen objektuez eta neure gorputzaz arduratzen nintzen, behin eta berriz egindako ekintza baten bidez higatzeko; aitzitik, **nire oraingo lanak berriz heltzen dio gorputz baten higaduraren eta desagerpenaren ideari** — entitate fisiko, moral eta espiritual gisa hautemandako totem horri—, baina oraingoan gorputz irristakor bat hartuta, hain zuzen, testualitatea", azaldu du.

Pieza 2022an sortu zen, PACAP5 arte performatiboen sorkuntza-programa aurreratuaren esparruan. João Fiadeirok Forum Dançarako (Lisboa) komisarioa da, eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren koprodukzioa du, non sorkuntza-prozesuaren zati bat garatu baita.

Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak

Maidier Olano
prentsa@azkunazentroa.eus
Tels. +34 648 773 373

NOTA DE PRENSA